



# «TAFALLA VASCONA»

Etsita ibili ohi omen gara abertzaleok. Eta egia da. Euskal Herriaren mina daramagu iltzaturik, eta gau eta egun senditzen dugu min gaitza. Eta min hau sekula senditu ez dutenei argudioak eta azalpenak ematea, alfer-alferrik da.

Pozak ere bai, ordea. Eta Larraga-ko joteroek berriki eman zigutenaz, esate baterako, mintzatua naiz jadanik.

Poz handia ere bai, bide beretik, «Tafalla Vascona» liburua irakurtzean. Nekez eman nezake nik hemen hau baino aholku hoberik: irakur zazu liburua!

Joxe Mari Espartza, tafallarra, 28 urte udal-kontzejala eta euskaldun-berria, manifestazio abertzale horietako batetan ezagutu nuen. Abertzale gartsu, bere jaioterriko historiaren ezagutzaile zorrotz, Nafarroak gaur behar dituen liburuetako bat eskaini digu; eta, baldinba!, jarraitzaile eta irakurle ugari lortuko ahal du!

Liburua irakurtzen hasi orduko, Jimeno Jurio-ren lumak prestatzen gaitu: «Para vergüenza y escarnio de los navarros, o mejor dicho, de los responsables de que las cosas hayan sido y sean así, determinados intereses han ocultado al Pueblo (azpimarraketa gurea da) el pensamiento, el sentimiento, la obra, e incluso los nombres de esas figuras vascas, gloria de Navarra, precisamente por haber proclamado la vasquidad esencial, original y originante, de Vasconia, y su íntima y consustancial vinculación al resto de la comunidad vasca» (4). Espartza-ren asmoa, hitz batez, Nafarroaren egia hori erakustea da; nafartarrei lapurtu eta izkutatu zaien historia hori bihurtzea. Eta eginkizun abertzale eta premiatsu horretan, benetan lortu ditu, gure ustez, tankera eta puntua.

Aurkezpenean, ordea, apalegi agertzen zaigu Espartza, euskaraz idatzi duenak: «Tafalla-ko gaurko abertzaleei eskaintzen diet idazlantxo hau. Euskal borrokan ari direnei, kaleetan, fabriketan, ikastoletan, beren gaztetasuna, indarra eta itxaropena herriaren alde uzten dutenei» (9). Tafallarrek bakarrik ez, ordea: abertzaleek oro baitute orrialde horietan zer ikasirik!

Denok, bai; eta «vascongado»ok gehiena hain zuzen.

Hots, Espartzak presentatzen digun Tafalla, erabat «gurea» eta erabat «borrokalaria» da. Eta ez genuen uste.

Erabat euskalduna, batetik; eta puntu honi buruz ere, datu harrigarri batzu ezagutarazten dizkigu tafallar aberki-deak. Harrigarriena (nahiz ez guztiz harrigarria) Juan Bruzain hazpandarraren bitartez heldu zaiguna. Bruzain apez hori, agian gerozko Broussain euskaltzainaren askazia, Tafallan egon zen 15 hilabetez 1795-an; eta, besteak beste, euskaraz azaldu zien kristau ikasbidea Tafalla-ko haurrei. Bidezkoa da, beraz, zenbait tafallarrek, gutxienez, euskaraz hitz egin dutela sinestea 1860 edo 1870 arte (32). Zer pentsa, hortaz, sozial-inperialistek eta Del Burgok, ahobetez, Nafarroari buruz oihukatzen dutena? Oraindik ere oroitzen naiz: «Como es sabido, la zona navarra al Sur de Pamplona perdió la lengua durante la Edad Media»...

Baina datu hori ez dator bakarrik. Espartzak berak gogorazten digu ezagun xamarra den beste hau ere: 1828.an Fernando VII. Tafallatik pasa zenean, hitz hauekin agurtu baitzuten tafallarrek: «Forastero, peregrino y prudente, no pases de largo a través de esta tierra vasca» (38). Eta aski da Kan-

pion-ek bere «Gramatikan» ematen dituen gauzak gogoan hartzea: «La región en que se habla el alto-navarro meridional por una minoría... está constituida por las siguientes localidades:... Puente La Reina, Obanos, Tirapu, Olcoz, Muruarte de Reta... Munarrizketa, Unzue, Barasoain, Garinoain, Oloriz...» (Gramatica, 41 / 1884). Gaur gezurra badirudi ere, euskara izan baita «lingua navarrorum», eta orain dela gutxi arte.

Euskalduntasuna, beraz, agiri agirian. Baina borroka-giroa? Nolazpait ere, erdi-abertzaletasunaz, zer? Puntu honez ere, datu harrigarriak gogorazten ditu Espartzak. «La quinta columna carlista era ni más ni menos que todo el campesinado vasco-navarro. Era tal la oposición a las tropas ocupantes y la identificación con el bando carlista, que en Tafalla, como en otros muchos pueblos, dejaron de llamar a quintas, no obstante estar en guerra» (60).

Hori dela-ta, ekintza militarrek eta zapalketa ez ziren sekula amaitzen; eta «estado de excepción» delakoa etengabea zen Euskadin: «Art. 1º: Se declara el estado de excepción en las provincias de Navarra, Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Art. 2º: Los reos de los delitos de rebelión y sedición serán juzgados militarmente, con arreglo a las leyes, por el Consejo de Guerra ordinario que se establecerá en las capitales de las provincias de Navarra, Alava, Guipúzcoa y Vizcaya...» (Pamplona, 16 de Enero de 1849)...

Hots, karlismo horrek zertara jotzen zuen ederki zekiten Madrillen: «¿Sería prudente destruir la esperanza... exponiéndose a que la guerra tome entonces un carácter de Nacionalidad que hasta ahora no ha tenido?» (48). Beldurra hutsa ote?

Egia du Espartzak ere bizkaitarrieriaz mintzo delarik: «Frente a la afirmación vasca desde Navarra, propiciada por Campión, Oloriz y otros, cuyo mejor exponente fue la Gamazada, el engendro del bizkaitarrismo introduce una concepción de lo vasco que hace iguales en el vestir, comer, cantar, bailar y vivir, a los arrantzales de Bermeo con los esparragueiros de Falces, y a los pastores de Urbía con los segadores de Candaraiz... la exaltación de la raza vasca, junto con el clericalismo a ultranza, producirán estupor entre los espíritus liberales y el entonces naciente y creciente socialismo tafallés... El Aranismo no pudo emplear formas más nefastas para concienciar al pueblo navarro de que era vasco» (85).

Arrisku hori ez da pasa, ordea. Eta hor dugu lotsarik nabarmena: indarrak gabeko kondar politiko batzuren truke, Nafarroari bizkarra emanda abiatu gabela berriz; erabat etsaiaren jokoan eroriz.

Eta beste mila gauza.

Eta foto ederrak apaingarri. Oso ederrak, oso hunkigarriak. Hor ageri zaigu Telesforo Montzon Tafallako zezenplazan: 1932! Borrokalaria nekagaitzak ez baitu etsi, eta ez etsiko ere.

Oso interesgarria ere, batez ere euskaraz ez dakitenentzat, Tafallako toponimiaz eta gaitzizenez Espartzak ekarri dituen eraskinak.

Liburu bikaina, beraz. Eta, niri dagokidenez bederen, txalo eta zorion guztiak bidaltzen lerro hauen bitartez. ■